

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko otsailaren 20an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen::

12. HITZARMEN BIDEZKO DIRULAGUNTZAK. 2025ERAKO EGITASMOAK ETA AURREKONTUAK ONARTZEA URUMEAKO KRONIKA.

Dobera Euskara elkarteak **Kronika egitasmoa bideratzeko** 2025erako egitasmoa eta aurrekontuak aurkeztu ditu.

Aurkeztutako aurrekontuan, Udalaren aldetik 70.000,- euroko diru laguntza jasotzea aurreikusi dute.

Euskara delegatuak ezagutzera eman du 2025eko udal aurrekontuetan 70.000 euro izendatuta daudela Dobera Euskara Elkartearen **Kronika** egitasmorako, eta diru kopuru hori bideratzea proposatu du.

Hitzarmenean jasota dagoenaren arabera honela egingo da ordainketa:

Ordainketa era:

2025eko martxoan	52.500 €
2026ko otsailean Likidazioa	<u>17.500 €</u>
Guztira	70.000,- € AD-97/2025

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2025eko otsailaren 13an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du

- 1.- 2024ko martxoaren 27ko Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako hitzarmena Hernaniko udalak Dobera Euskara Elkartearekin sinatutakoa, Kronikaren egitasmoa bideratzeko, berritzea.
- 2.- Onartzea **Kronika** egitasmoa bideratzeko 2025eko udal aurrekontuetan jasota dagoen diru laguntza bideratzea: 70.000 €.

KONTUSAILA.- 02.481.02.335.00.2025. "Zuzeneko erregimenean emandako Euskara Zerbitzuko diru laguntzak".

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2025eko otsailaren 20an

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKUfcbbd0af-03ec-4ba0-b8dc-6c6351c62f07**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>